

Onaindia dogu. Pausuz-pausu zapaldu izan ditu maite dituan Euskalerriko errialde eta auzoetako bazterrak: bere arloa dauan *berbean*, *literaturan* be argi bai argi agiri da Euskal Lurralde guztiakanako *maite-zabaltasun* ori.

3. Eliz-gizon eta idazle ekintzan artuemon ugari izan ditu: eurotarik naiko, eritxi eta erizpide ezbardinetakoekez. Asikeratik alboratu, zapuztu orde, kultura alkarrizketa burutu izan dau.

Bere gurasoak eta Euskalerriak, ezer galdu ete dabe S. Onaindiak erlijioso-bizitzeari jarraitzeaz? Bidezko dogu une onetan Lino Akesolo bere ikasbidea aipatzea eta euren aldikideak diran Ma-



nuel Lekuona, Jose Migel Barandiaran edo Alberto Onaindia..., beste askoren ordezkariak lez. Egia da, S. Onaindiaren ikaskide batzuk eta beste ainbat eta ainbat Euskalerritik kanpo izan dira lanean: baiña orreexek atan be ezagutazo eta maitagarri egin dabe